



Paul Bilbao (Hizkuntza Eskubideen
Behatokiko zuzendaria)

HIZKUNTZA EZKUBIDEAK EUSKAL CURRICULUMEAN

ZERGATIK ETA ZERTARAKO

Hizkuntz Eskubideen Behatokiaren helburuen artean, hizkuntza-eskubideen edukia gizarteratzea ere badago. Euskal hizkuntza-komunitateak bere egoeraren berri izan behar du autopertzepziarako.

Izan ere, egun hizkuntza-eskubideen urraketa horren sistematikoa da, non herritarrak eskubidez gabaturik ikusten duen bere burua. Horrek bi ondorio nagusi eragiten ditu; batetik, naturalizatu egiten da hizkuntza-eskubideen urraketa eta, askotan, horren aldarrikapena kapritxotzat hartu izaten da.

Behatokiak azken lau urteotan egindako hizkuntza-eskubideen egoeraren diagnosian ondorio bat errepikatu izanak biziki kezkatu gaitu, eta, neurri batean, horri erantzuna ematea izan da unitate didaktikoaren prestakuntza. Urterik urte egoeraren diagnosian Behatokiak honako hau jaso izan du:

Hizkuntza-eskubideen urraketa zabal eta sistematikoak euskal hiztunek euren hizkuntza-eskubideez duten pertzepzio subjektiboan du eragina. Izan ere, Euskal Herrian, euskaldun jendeak luzez bizitutako legezko gutxiagotasun eta menpekotasunak egungo egoera, eta ondorioz, hizkuntza-eskubideen urraketa sistematikoa naturalizatzea ekarri du.

Hizkuntza-eskubideak Euskal Herri osoan eta administrazio guztiek urratzen dituzte, are gehiago, zenbait kasutan eskubide horiek sistematikoki urratzen dira. Horren ondorioz, herritarrak atxikimendu handiagoa izan behar dio hizkuntzari eta une oro hizkuntza-eskubideen aldarrikatzaile bihurtzen da.

Egun Euskal Herrian elkarrekin bizi diren hizkuntzen artean desoreka ikaragarria dago, are gehiago, berezko hizkuntza baliatu nahi dutenek hizkuntza-eskubideen urraketa ez ezik, urraketa horiek eragindako alboko kalte-ondorioak ere jasan behar dituzte: zerbitzurik jaso ez, atzerapenak, defentsarako edota babes judizial eraginkorrerako eskubidearen urraketa etab.

Gainera, gogoratu behar dugu, geure hizkuntza-komunitatea zazpi status juridikoren mende dagoela, eta herritarrari bizi den tokiaren arabera aitortzen zaizkiola eskubideak. Horrela, bi egoera egonik ere, ondorio bera izaten da:

- Legeak berak urratzen ditu hizkuntza-eskubideak.
- Legea aldeko egon arren, hizkuntza-eskubideak urratu egiten dira.

Eremu batzuetako herritarrei, beraz, legeak berak mugak ezartzen dizkie eta kasu batzuetan haien existentzia bera ere ukatzen die. Beste eremu batzuetan, legea aldeko izateak ez die hizkuntza-eskubideen bermea ziurtatzen.

Zalantzarik ez dago, arestian esan bezala, horrek guztiak ere herritarraren pertzepzioan eragin zuzena duela. Normalean inertzia politiko-instituzional baten kontra egin behar du euskaldunak. Hizkuntza nagusien aldeko eragileek kapritxotzat hartzen dute hizkuntza gutxiagotuetao hiztunek eskubideak aldarrikatzea, eta, noski, horiek berma daitezela eskatzea. Euskaraz bizi nahi izatea kapritxotzat hartzen da, ez eskubidetzat.

Horri guztiari, eta gaztetxoenei dagokienez batik bat, beste faktore bat erantsi beharko genioke, alegia, haustura edo desoreka emozionala. Kasu askotan gaztetxoek euskara erabili nahi izateak zer nolako alboko kalte-ondorioa eragiten dien hautematen dute. Halaber, zenbait norbanakok eta taldek zabaltzen duten mezua ere barneratzen dute: hizkuntza nagusiak jakitearen garrantzia edo beharra. Behatokian hamaika aldiz egiaztatu ahal izan dugu medikuarengana joaten denean ume euskaldunak izaten duen inpotentzia, hainbat funtzio sozialetan euskara ezin erabiltzea, eta gaztelania zein frantsesa baliatu behar izatea ama-hizkuntza izan ez arren... Horrek guztiak ere umearengan eragina dauka, eta euskara funtzio sozial guztietarako balio ez duela ohartzen da.

Unitate didaktikoaren bidez, ikasleei hizkuntza-komunitate bateko kidea dela helarazi nahi zaie, eta horren ondorioz, beste edozein hizkuntza-komunitate dituen eskubide berdinak dituztela oharrarazi. Ikasleak horrelako edukiekin hornituz gero, errazago egin ahal izango diete aurre egunerokotasunak eragiten dizkien urraketek, eta egun bizi behar dituzten gabeziak indarrean dagoen ordenamendu juridikoaren edota eskubideen bermerako mekanismorik ez egotearen ondorio direla ikusi ahal izango dute. Hau da, sistema desegokiaren ondorioak pairatu behar dituztela.

XEDEA

Faktore horiek guztiak kontuan harturik, Hizkuntz Eskubideen Behatokiak hezkuntza-sisteman bere ekarpena egitea deliberatu zuen, bi xede nagusi zituela:

- Ikasleak beren hizkuntza-eskubideez oharraraztea.
- Hizkuntza eskubideen urraketen berri emateko tresna eskaintzea

Bi xede horiek betetze aldera honako ideiak landu nahi izan ditu Behatokiak argitaratutako unitate didaktikoak:

- Euskal Herri osoko euskaldunok, munduko hizkuntza-komunitate guztietako kideok, eskubide berdinak ditugu.
- Euskaldunok hizkuntza-komunitatea osatzen dugu.
- Europan hainbat hizkuntza-komunitate dago, eta mapa politikoarekin zerikusirik ez du.
- Euskaldunok bizi garen tokiaren arabera ditugu aitortuta hizkuntza-eskubideak.
- Euskal Herri osoan urratzen dira hizkuntza-eskubideak.
- Hizkuntza-eskubideen urraketen berriemaile behar dugu izan.

HELBURUAK

Unitate didaktikoa bost ataletan banatuta dago. Hizkuntzei buruzko hausnarketa orokorretik hasten gara eta, egun hizkuntza-eskubideen urraketen berri ematera animatzen amaitzen ditugu ikasleak.

Hona hemen atal bakoitzak jasotzen dituen helburu nagusiak eta horien garapenaren deskripzio laburra:

1. Hizkuntza-aniztasuna

Landuko diren helburuak:

- Munduko eta Estatuetakoko hizkuntza-aniztasuna ezagutzea
- Hizkuntza-komunitatea delako kontzeptua ezagutzea
- Hizkuntza-komunitatea eta Estatuak kontzeptuak bereizten jakitea
- Munduko hizkuntza-aniztasuna hizkuntza gutxi batzuetara murrizten ari den egungo egoera globalizatzaileaz ohartzea.

Lehen atal honetan hizkuntza-aniztasunaren inguruko hausnarketa sustatu nahi du unitateak. Horretarako, munduan diren hizkuntzen inguruko informazioa lantzen da. Bestalde, garrantzi handia eman nahi izan zaie banaketa administratiboa azaltzen duten mapek hizkuntzen eremuan agertzen dituzten gabeziei, hain zuzen ere, aurreragoko ataletan Euskal Herriko mapa hobeto ulertu ahal izateko.

Ikasleentzat berria izan daitekeen terminoa ere ekarri dugu lehen atalera: hizkuntza-komunitatea. Funtsezko elementua izango da unitate didaktikoan zehar, eta beraz, arras garrantzitsua da ikasleek hasieratik horren berri izatea, horren definizio argia ulertzea eta beraiek ere beren burua komunitate bateko kide gisa identifikatzea.

2. Hizkuntza-eskubideen definizioa

Landuko diren helburuak:

- Hizkuntza-eskubideak zer diren jakitea
- Munduko eta Europako deklarazioetan hizkuntza-komunitate guztiek eskubide berdinak dituztela jakitea.
- Hizkuntza-eskubideei dagokienez, hizkuntza guztiak berdinak direla jakitea.
- Hizkuntz Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren printzipio nahiz eskubide nagusiak ezagutzea.
- Ingurune hurbilean hizkuntza-eskubideak errespetatzen diren ohartzeko gaitasuna izatea.

Bigarren atalean, hizkuntza-komunitatearen kontzeptutik abiatuta, horiei zein eskubide aitortu behar zaien hausnartu nahi dugu ikasleekin. Horrela, berdintasun irizpidea aplikatzearen beharra jorratzen da, hau da, hizkuntza-komunitate guztiek eskubide berdinak dituztela.

Hizkuntza-eskubideak zer diren lantzea da atal honetako bigarren zutabe nagusia. Ikasleek urraketak zer-nolakoak diren ikusi ahal izango dute eguneroko gertaeretan oinarrituz. Azkenik, hizkuntza-eskubideen inguruan dauden deklarazioen edukari buruzko hausnarketa sustatu nahi izan da, ikasleek horren inguruko balorazio kritikoa egin dezaten.

3. Euskal Herriko ordenamendu juridikoa

Landuko diren helburuak:

- Euskarari dagokionez, Euskal Herrian indarrean dagoen legeria ezagutzea.
- Geure hizkuntza-komunitateak Euskal Herri osoa eskubide berdinak dituela jakitea, legeak berdin babestu ez arren.
- Legeak euskaldunoi diskriminazioa dakarkigula jakitea.

Hizkuntza-eskubideak zein diren definiturik eta geurea bezalako hizkuntza-komunitateak ere, osoki, eskubideak badituela ikusirik, egoera erreala lantzea da atal honetako helburu nagusia.

Ikasleei Euskal Herriko maparen beste bertsio bat aurkeztuko zaie, hizkuntza-eraentzan oinarritutako mapa. Tresna hori baliaturik, ikasleak indarrean dagoen legeak euskaldunon artean sortzen dituen bereizkeriez ohartu ahal izango dira, eta alde zuzenetik landutako edukiak kontuan harturik, horren inkoherentzia ondorioztatu ahal izango dute.

4. Hizkuntza-eskubideen egoera Euskal Herrian

Landuko diren helburuak:

- Hizkuntz Eskubideen Behatokia ezagutzea
- Euskal Herrian hizkuntza-eskubideen egoerari buruzko informazioa izatea.

Egungo errealitate juridikoa zein den oharturik, Euskal Herriko benetako egoerara jauzi egingo dugu laugarren atalean. Bestalde, hizkuntza-eskubideen babeserako sortu zen erakundearen lana aztertzekeo parada izango dute, gizarte eragileek hizkuntzaren normalizazioan eta hizkuntza-eskubideen babesean duten lanaren garrantziaz ohartzeko.

5. Urraketen berri

Landuko diren helburuak:

- Hizkuntza-eskubideen urraketak identifikatzea
- Hizkuntza-eskubideen urraketak Euskararen Telefonoa zerbitzuaren bidez bideratzea.

Edukiak ondo barneraturik, ikasleak subjektu bihurtuko ditugu atal honen bidez. Ikasleei eguneroko bizitzan izandako hizkuntza-eskubideen urraketen berri emateko tresna aurkeztuko zaie. Horri esker, ikasleek hizkuntza-eskubideen urraketan konponbiderako urratsak eman ditzaketela ohartuko dira eta egoera iraultzeko aktiboak izan daitezkeela ondorioztatu ahal izango dute.

NOLA LANDU

Arestian zerrendatutako helburu eta edukiak lantzeko, unitate didaktikoak egitura zehatz bati jarraitzen dio atal bakoitzean. Bestalde ikasleek bizi dituzten egoera errealak hartu ditu oinarritzat eta edukiak (kontzeptuzkoak, prozedurazkoak eta jarrerazkoak) modu didaktiko eta mailakatuan jorratu dira.

- Lehenik eta behin helburuen berri ematen da, zer landuko duten ohar daitezzen ikasleak.
- Ondoren, edukiak eta ariketak agertzen dira. Zenbait kasutan landu nahi den edukiari buruzko informazioa ematen da lehenbizi, ariketen bidez horren lanketa egiteko. Bestetan, edukiari buruzko informazioa eman aurretik eskaintzen dira ariketak, ikasleen aurrezagutzetatik abiatzeko asmoz.
- Mota desberdinetako ariketak proposatzen dira unitatean zehar: proposatutako ideiei buruz hausnartzea, informazio osagarria bilatzea, testu errealak irakurtzea, abestiak entzutea... Beti ere ikasleen ingurunetik hurbil dauden egoeretan oinarriturik. Ikasleei une oro ariketaren izenburuan horren funtsa adierazten zaie, alegia, zer egin behar duten azaltzen zaie: aurkitu, hausnartu, entzun...
- Atal bakoitzaren amaieran, landutako kontzeptu nagusiak agertzen dira, ikasleari ikasitakoa gogorarazteko. Halaber, landutako edukietan sakontzeko aukera eskaintzen zaie ikasleei.

AZKEN HITZA

Hainbat eragile eta norbanako Euskal Curriculuma definitzeko eta paratzeko egiten ari diren lana zoriontzekoa da, zalantzarik gabe. Bai eta Udalbiltzak hori burutu eta koordinatzeko agertu duen prestutasuna ere. Hartara, Hizkuntz Eskubideen Behatokiak ere ekarpen xumea egin nahi dio Euskal Curriculumari, eta beraz, hona hemen, erakunde honen aburuz, besteak beste, Euskal Curriculuma jaso beharreko edukiak:

Kontzeptuzkoak:

- ✍ Munduko hizkuntzak
- ✍ Hizkuntza-aniztasuna
- ✍ Hizkuntza-komunitatea
- ✍ Hizkuntza-eskubideak
- ✍ Euskal Herriko ordenamendu juridikoa, hizkuntzari dagokionez.

Prozedurazkoak

- ✍ Hizkuntza-eskubideen urraketen egoera errearen inguruko hausnarketa egin eta datuak bildu.

Jarrerazkoak

- ✍ Hizkuntzak ezagutzea eta aberastasun gisa ulertzea, baloratzea, sentitzea, bizitzea.
- ✍ Ukipen-egoeran dauden hizkuntzen aurreiritziak alde batera uztea.
- ✍ Euskara erabiltzearen aldeko jarrera aktiboa lantzea
- ✍ Norberaren eskubideen kontzientzia izan eta defendatzea.
- ✍ Eskubideen kontzientzia izatea eta horien defentsarako tresnak erabiltzea.